

KARMELE MUÑOA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

**ZIURTATZEN DOT:**

2010eko martxoaren 17an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

**11.- ARRAUN ALKARTEKO ARGINDAR-SAREA EGOKITZEKO LANAK BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.**

**Xedea**

Arraun alkarteko argindar-sarea egokitzea. Behin-behineko esleipena.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: Prozedura negoziatuaren bidez 3 enpresa gonbidatu dira eskaintzak aurkeztu daiezan.

- E. ASMOTUR-URIARTE, S.L.
- TECUNI, S.A.
- ELECTRICIDAD MANU, S.L.

ELECTRICIDAD MANU, SL enpresek ez dau hobakuntzarik aurkeztu eta eskaintzen arabera, lizitazino-prezioa mantentzen da.

TECUNI, SA eta E. ASMOTUR-URIARTE, SL enpresek, ostera, beherapen bat egin dabe, hala eta guztiz be, hori ez da kontuan hartzen balorazinoa egiteko, holan dagoalako jasota baldintza-orrietan. Aitatutako azken enpresek ez dau hobakuntzarik aurkeztu.

Bigarrena: Aurkeztutako dokumentazinoa aztertu ostean eta kalifiketako sistema kontuan harturik, TECUNI, SA enpresek lortu dau punturik gehien. Hauxe da puntu kopuruaren taulea:

Enpresea	Hobekuntzak (0-100)		Guztira (0-100)
	Obra gehitzea (0-70)	Bestelakoak (0-30)	
ASMOTUR-URIARTE	0	0	0
TECUNI	0	30	30
ELECTRICIDAD MANU	0	0	0

## **Erabagia**

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Arraun alkarteko argindar-sarea egokitzeko obrea TECUNI, SA enpreseari esleitzea behin-behinekoz, 16.409,26 euroan (BEZa kanpo). BEZari jagokon zenbatekoa 2.625,48 €-koa da. Guztira, 19.034,74 €.

BIGARRENA: Kontratuan jaso beharko dira enpresek aurkeztutako hobekuntza guztiak.

HIRUGARRENA: Enpresa esleipendunari jakinarazotea, behin betiko esleipena egin ahal izateko, jarraian adierazoten dan jarduketea egin beharko dauela:

- Behin betiko bermea jarri (820,46 €).

Horretarako hamar (10) laneguneko epea eukiko dau, erabagiaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2010eko martxoaren 22an.

ONETSIA  
ALKATEA